


LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · JOURNALITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIA · ZIENTZIA · DANTZA · IDETZIA · KUTXA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA

ERAKUSLEIHOA

LITERATURA

'Ahotsak eta itzalak'

Maixa Zugasti. Erein.
240 orr. 18 euro.




Erbestearen gordintasuna

Aita batentzat gogorra da bi seme txikirekin erbestera alde egitea, gerra usaina sentitzean; are latzagoa, emaztea eta alaba txikia atzean utzita joatea. Denbora ez da sarritan gai izaten bizipen gordinek sortutako zauriak sendatzeko, eta, haur horietako batek, Luisek, ahalegin handiak egin beharko ditu haurtzaroko helduen mundu ezkutua ezagutu ondoren, bere eleberria idazteko. Haatik, maitasunaren izenean egia ezkututuko dioten ahotsak ere inguruan ibiliko dira... Eleberri honetan, erbestearen bizipen gordina, ankerkeria eta heriotza aurkituko ditugu, baina baita maitasuna ere.

NARRATIBA

'Errukiaren saria'

Iñaki Irazu. Erein.
144 orr. 14 euro.



Eguneroko ahotsak

Bulego bat. Lan egin ondoren herrira ekar-tzen zaituen autobusa. Agureak arratsean jarrita egoten diren petrila... Eguneroko bizi-modua egiten dugun leku horietan garatzen dira Iñaki Irazuren kontakizunak. Aldian behin, ordea, bulegoko langilea, petrileko atso hori, autobuseko asentuan doan etxeakoandrea, beraren minera etortzen da, baruko zauria zabaldu egiten zaio: orduan, min horrek eraginda, boz bat askatzen du isiltasuna urratuz. Gazte hori, atso hori, etxeakoandrea hori... gu denok gara, eta haien bozak aditzean jabetzen gara geure burua ari garela aditzen, guri ere badagozkigula.

ZALDI EROA

